



**2014KO IRAILAREN 19KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamalauko irailaren hemeretzian, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes eta Inazio Estensoro Eskisabel.

Haizea Mendia Insausti eta Maialen Aldasoro Aranburu zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2014ko irailaren 5ean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2014ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 68 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, EHUN ETA HOGEITA HAMABOST MILA LAUREHUN ETA LAUROGEITTA HEMERETZI EURO ETA LAUROGEITA HAMAHIRU ZENTIMO (135.499,93 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeke Laguntza Zerbitzua.-

- 14-11-08 zbk.dun esped.: zerbitzuan alta ematea 2014ko irailaren 1etik aurrera, astean 5 egun eta eguneko ordu betez, laguntza pertsonalerako. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %24a izango da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 12-01-009 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu eta mantenimendu gastuetarako laguntzatik baja ematea, 2014ko urritik, bizileku aldaketagatik.
- 12-01-004 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu eta mantenimendu gastuetarako laguntzatik baja ematea, 2014ko urritik, dirusarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea izateagatik.



- 12-01-007 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu eta mantenimendu gastuetarako laguntzatik baja ematea, 2014ko urritik, bizileku aldaketagatik dirusarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea izateagatik.

Presoen familientzat garraio laguntza.-

- 12-13-01 zbk.dun esped.: 2014ko uztaitetik aurrera garraiorako ematen zaion dirulaguntzatik baja ematea, bere senitartekoaren egoera aldatu delako.

Ifarra-Hegoa Lankidetzeta Programa.-

<u>ESKATZAILEA</u>	<u>PROIEKTUA</u>	<u>DIRULAGUNTZA</u>
Ilargi beltza elkarte	9 landa eremuko eskoletan hobekuntzak (Nikaragua)	4.000,00€
Mundu solidarioa helburu	Gaitasun urriak dituzten gazteen integrazioa (Nikaragua)	7.500,00 €
Lankidetzarako ingeniari	Lehen hezkuntzarako heziketa etxea (Benin)	3.000,00 €
Felix Baltistan Fundazioa	Emakumeen eta jaio berrien osasun baldintzak hobetzea (Pakistan)	1.500,00 €
Tximelagua fisioterapia pediatrikoaren garapenerako eta lankidetzarako elkarte	Urritasun fisikoa duten umeei zuzenduriko fisioterapia zerbitzuari jarraipena (Nikaragua)	10.000,00 €
Donostiako Elizbarrutiko Misio Ordezkaritza	Giharako (Rwanda) kaleko haurren ikas txorako eraikin berria eraikitzeko egitasmoa.	16.000,00 €
Derandain	Oinarrizko heziketa baliabideak haurrentzat (Kenia)	5.000,00 €
Bakerako lankidetzeta batzarra	Jakien baldintzen hobetzea (Haiti)	5.000,00 €

IV.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak sei gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

